

 <p>BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA</p>	<h1>ZERBITZUEN KARTA</h1>	KODEA	OR.
		2 ERANSKINA MC	1/
		Data	Berr.
		2006ko iraila	1

HARTU DITUEN KONPROMEZUAK

Konpromisoa
Mankomunitateari atxikitako udalerrietan bilketa sailkatua bultzatzea
Bilketa modalitate bakoitzerako ezarritako maiztasuna/ ordutegia betetzea
“Berezien” bilketari dagokionez, aldez aurretik eskatu beharko du partikularrak zerbitzua
Hondakin arriskutsuak: urte oro jakinaraziko dira bilketa egunak eta orduak, zerbitzuaren biztanle onuradunei urte oro bidaliko zaien egutegiaren bidez
Jakinaraztea, ezinbertzeko kasuetan, hondakinen bilketa aitzinera eramateko ezintasuna, bere izaera edozein izanik ere, udal bandoaren edota tokiko prentsaren bidez
Zerbitzuan esku hartzen duten enpresa esleipendunen kalitate maila ikuskatzea
Mankomunitateak emaniko jarraibideak behar bezala betetzen direla zaintzea eta aipaturiko arauak betetzen ez dituen erabiltzailea oro zehatzea

Konpromisoa
Udalerrii ekipamenduz eta azpiegituraz hornitzea, bilketa sailkatuaren kalitatea eta kantitatea handitzeko
Edukiontziak:
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Edukiontzi mota, kopurua eta egokitasuna aztertu eta jarraipena egitea. ▪ Kalteak jaso dituzten edukiontziak konpontzea 72 orduko epean, batez bertze.
Bilketa tokiak:
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Biltzeko tokien kokapen eta kopuruaren egokitasuna aztertu eta jarraipena egitea. ▪ Ukitutako auzokideei aldaketak eta bilketa toki berriak jakinaraztea. ▪ Bilketa zerbitzuak ingurumeneari duen eragina (zaratak, usainak, zikinkeria...) murriztea. ▪ Bilketa tokien garbitasuna eta txukuntasuna kontrolatzea, aldi behingo ikuskapenen bidez.

ZERBITZUA: tramitazioak (altak, bajak, tasak kobratzea)

Konpromisoa
Udalekin batera, zerbitzuaren erabiltzaileen datuak etengabe eguneratzea, altak eta bajak erraztu ahal izateko, datuen konfidentzialtasuna bermatuz betiere.
Zerbitzuaren eskaerak eta/edo bertzelako eskaerak modu atseginean eta profesionalean egitea.
Iradokizun eta erreklamazioak jaso eta idatziz erantzutea 72 orduko epean.

 <p>BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA</p>	<h2>ZERBITZUEN KARTA</h2>	KODEA	OR.
		2 ERANSKINA MC	2/
		Data	Berr.
		2006ko iraila	1

Zerbitzuen tasak jakinaraztea urtero, NAOean argitaratuta, bandoen bidez eta/edo prentsa idatzian argitara emanik.

Zerbitzuarekin zerikusia duen informazio eguneratua eskuratzeko aukera erraztea erabiltzaileari (araudia, noraino heltzen den, maiztasunak eta bilketa egunak, harremanetarako telefonoak...), web orriaren bidez edo bertzelakoak erabilia (telefonoa, aurrez aurrekoa, posta elektronikoa...).

ZERBITZUA: Informazioa/ dibulgazioa

Konpromisoa	Adierazlea
Ahalik eta herritar kopuru handiena informatu eta sentsibilizatzea hondakinak modu egokian kudeatzera buruz, beren laguntzaren garrantzia azpimarratuz.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzuaren erabiltzaileei igorritako eskuorri eta dibulgaziorako materialen kopurua
Birziklapena bultzatzea, gaiaren inguruan dauden helburuak eta araudia betetze aldera.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bilketa sailkatua handitzea, aitzineko urtearekin alderatua
Bertze erakunde batzuekin elkarrekin lan egitea gure eskualdean informazioa zabaltzeko ekintzetan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Abian jarritako ekimen kopurua
Datuak urtero argitaratzea (web orria, Ttipi-Ttapa, tokiko irratia,...) : <ul style="list-style-type: none"> ✓ Bilketa zerbitzuaren eragina eskualdean. ✓ Karta honetan hartutako konpromisoen betetze maila. 	
Ondokoek eskaturiko informazioa ematea: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Administrazioak eskaturikoa, ezarritako epea betez. ✓ Enpresak edo herritarrek eskaturikoa, ahalik eta denborarik laburrenean. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Epeen betetze maila ▪ Erantzuteko erabilitako denboraren batez bestekoa